



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

GAOn 2003an argitaratuta

### *Iragarkia*

Jendaurreko erakusketa igaro eta tartejarritako erreklamazioari erantzun ondoren, 2003ko maiatzaren 20an hartutako erabakiaren arabera ALTZOKO IRRATI-TELEFONIA MUGIKOR ZELULARRAREN UDAL ORDENANTZA behin betikoz onartuta gelditu da eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70 artikuluekin bat etorritz, indarrean sartu dadin, testu osoa argitaratzen da.

## **ALTZOKO IRRATI-TELEFONIA MUGIKOR ZELULARRAREN UDAL ORDENANTZA**

### **HITZAURREA**

Telekomunikazioen merkatuaren liberalizazioaren eraginez azkar garatu eta hazi dira kalitatezko zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren telekomunikazioko elementu guztiak. Telekomunikazio-zerbitzuek lurraldean eragin zuzena duten azpiegiturak behar dituzte. Zientzia eta Teknologia Ministerioaren baimena duten operadoreen ezarpen-prozesuak eta merkatuaren gorakada azkarrak nolabaiteko disfuntzioak eragiten ari dira, eta toki administrazioak ez daude disfuntzio horien ondorioetatik salbu.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25, 26 eta 28. artikuluetan eta hirigintza eta ingurumenaren arloko arauetan onartzen diren aginpideen indarrez, udalerriek eskubidea dute prozesu horretan esku hartzeko.

Ordenantza honetan biltzen den udal-arautzearen kalterik gabe, erabat eta nahitaez aplikatu beharko dira telekomunikazioen sektorea arautzen duen sektoreko berariazko arauak; gaur egun ondokoak dira: Telekomunikazioen 11/1998 Lege Orokorra, apirilaren 24koa; 1/1998 Errege Dekretu Legea, otsailaren 27koa; 11/1998 Legearen II. Tituluaren garapen-araudia onartzen duen 1651/1998 Errege Dekretu Legea, ekainaren 24koa; 11/1998 Legearen III. Tituluaren garapen-araudia onartzen duen 1736/1998 Errege Dekretua, uztailaren 31koa; Telekomunikazio-azpiegitura komunei buruzko 279/1999



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Errege Dekretua, otsailaren 22koa; eta arlo honetako mota guztietako instalazio eta ekipoei buruzko araudiak eta zehaztapenak.

Lege honen garapenean garrantzirik handiena duten xedapenetan irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretua dago. Horren bidez onartu ziren jabari publiko irrati-elektrikoetarako baldintzak, emisio irrati-elektrikoen mugapenak eta emisio horietatik babesteko neurri sanitarioak finkatzen dituen araudia; azken batean, ordenantza honen erregulazio-eremua zehazten duen araudia.

1066/2001 Errege Dekretuaren zio-agerpenean, Europako Batasuneko Ministroen Kontseiluaren 1999ko uztailaren 12ko Gomendioan (jendea oro har eremu elektromagnetikoen eraginpean edukitzeari buruzkoa) emisio irrati-elektrikoen bidezko eremu elektromagnetikotatik babesteko finkatutako irizpideak onartzen direla berresten da xedapen honekin.

Nolanahi ere, ordenantza baliabide egokia da ingurunea babesteko, herritarrei segurtasuna emateko eta hirigintza gordetzeko baldintzak finkatzeko. Hortaz, ordenantza honetan finkatzen diren baldintzak betebeharrekoak izango dira era honetako instalazioentzat, batez ere baimena behar dutenentzat.

### **ZIO-AGERPENA**

Telekomunikazioen liberalizazioak eta 1998ko Telekomunikazioen gaineko Lege Orokorrak aldaketa garrantzitsua ekarri dute sektore honen garapenera.

Liberalizazioa ez da izan bakarrik zerbitzuetan (eta operadoreetan), baita zerbitzu hori emateko behar diren azpiegituretan ere.

Azpiegitura berrien premia eta azpiegitura horiek erregulatzeko araudia ez dira parean etorri; denbora luze batean, egungo egunetaraino esan daiteke, azpiegituren instalazioa inolako kontrolik gabe garatu da erabat. Operadoreek azpiegiturak jartzeko kokaguneak hartuz etorri dira lizentziako xedapenetan oinarriturik, eta erakunde publiko eta tokikoek ez dute inolako araurik agindu azpiegitura horien forma, kopurua eta premiak kontrolatzeko. Azken finean azpiegitura horiek jartzeko ez dira kontuan izan hiriaren garapenerako planak eta irizpideak.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Arestian esandakoak egungo egoera islatzen du laburbildurik. Hori ikusita, beraz, normala da edozein udalek araudi edo prozesu zehaztuak xedatu nahi izatea, bere udalerrian zerbitzu horiek ezartzeko, betiere operadoreen arteko lehiakortasunak librea izan behar duela onartuz.

Hortaz, ondoren, udalak bere barrutiko azpiegiturak erregulatu ahal izateko araudi bat lortzeko prozesua aurkeztuko da.

Tokiko administrazioak gainezka daude, bat-batean jaso dituzten obra-lizentzia eskaeren oldarkadaz, eta ezinbestean, ahal izan duten moduan erantzun behar izan die ohiz irizpide subjektibo hutsetan oinarrituz. Era honetako instalazioak erregulatzeko araudirik ez egoteak honako ondorioak ekarri ditu: alde batetik, herri zein landa inguruetan antenen egitura eskergak eraiki dira ingurunea eta herrien itxura larriki kaltetuz; bestetik, herri eta auzoetan zangak irekitzeko etengabe ari dira kaleak urratzen eta estaltzen, holako lanek herritarrengan sortzen dituzten molestia eta eragozpenak kontuan izan gabe.

Telekomunikazioen gaineko Lege Orokorreko 43. artikulua xedatzen duenez, telekomunikazioen sare publikoak jartzeko banakako lizentzien operadore titularrek, hau da, Titulu honetako I. kapituluaren xedatutakoarekin bat zerbitzu publikoaren obligazioak dagozkienek, honako eskubideak izango dituzte: herri-jabaria okupatzea, nahitaezko desjabetzapena eskatzea eta zorpenak eta mugapenak jartzea, kapitulu honetan xedatutakoarekin bat. Bestalde, aipatu legeko 45. artikuluko b) idatz-zatian xedatzen den bezala, erabilera-baimenak tokiko erregimeneko legerian xedatutakoaren arabera emango dira.

Ordenantza honek oreka bat bilatu nahi du, operadoreek telekomunikaziorako beren sareak jartzeko duten eskubidearen eta Udalek beren lurraldea, ingurune eta hirigintzari begira, antolatzeko duten ahalmenaren artean.

Mota horretako instalazioen arauketa telekomunikazioak interes orokorreko instalazioak direla onartuz egiten da, eta betiere, ahal den neurrian behinik behin, "erabilera partekatua"ren irizpideak ezartzeko ahaleginak eginez, haien azpiegituren eragin kaltegarriak minimizatuz, herri-jabaria okupatzeko obra etengabeak ekidinez eta udalaren eta herritarren interesak zainduz eta gordez. Hori guztia telekomunikazio sareen operadoreei tratu-berdintasuna ematearren eta beren artean diskriminaziorik eza gordetzearren.



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Araudiak operadore berriak sartzeko aukera bermatzen du, betiere jada lanean dauden operadoreak baztertu gabe, eta betiere lehiakortasun librerako eta araturako eskubideak denentzat bermatuz.

Araudi honen xedea telekomunikazio zerbitzu desberdinak behar bezala kokatuko direla ziurtatzea da, baita horien kokapena modu ordenatuan sustatzea ere; azken finean, xedea zerbitzu horiek udalaren jabari publikoan jartzeko eta eraikitzeko baldintzak erregulatzea da.

### **I. TITULUA**

#### **XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. artikulua. Helburua eta asmoak.**

1. Ordenantza honen helburua zera da: telekomunikaziorako elementu eta ekipoek Altzoko udal barrutian kokatzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko bete behar dituzten hiri eta ingurumenaren alorreko baldintzak arautzea.

2. Asmo horrekin, bateragarri bihurtu nahi dira aipatu elementu eta ekipoen funtzionaltasuna eta telekomunikazio-zerbitzuen erabilgarritasuna instalazio mota hauek eskatzen duten kalitate mailarekin; horretarako, alde batetik, instalazio horien eraginak zaindu behar dira, ingurunean eta herrian izango dituzten eraginak minimizatu eta herritarren osasuna emisio irrati-elektrikoetatik babestu.

##### **2. artikulua. Ezarpen-eremua.**

1. Lurraldeketasunaren ikuspegitik begiraturaz, araudi honetako betebeharrak Altzoko udal barruti osora hedatuko dira.



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

2. Ordenantza honek "*Herriaren eskura daudelarik, herriaren jabari irrati-  
elektrikoa erabili behar duten Telekomunikazio Sareak*" arautzen ditu;  
ordenantzak, halaber, aire zabalean zehar zuzenean edo zeharka uhin  
elektromagnetikoak hedatzeko, herriaren jabari irrati-elektrikoa erabili behar  
duten telekomunikazio-sareekin zerikusi duten azpiegitura eta instalazioak ere  
arautzen ditu.

## **II. TITULUA**

### **EZARPENERAKO BALDINTZA OROKORRAK**

#### **3. artikulua. Arau orokorrak.**

1. Telekomunikaziorako instalazioak Altzoko Hiri Antolaketako Arauetan sar daitezke. Hiri Antolaketako Arauetan finkatuko dira berriaz baimendutako edo onartutako kokapenak; edozein modutara, kokapen horietan ere ordenantza honetan finkatutako arauak bete beharko dituzte telekomunikaziorako instalazioek.

2. Udal planeamendu orokorrean, hirigintza edo ingurune alorreko edozein arrazoi dela bide, telekomunikaziorako instalazioak jartzea berriaz debekatzen denean, ezingo da mota horretako instalaziorik jarri inolaz ere.

### **GARAPEN-PROGRAMA BATERATUA**

#### **4. artikulua. Garapen-programaren komunikazioa.**

1. Irrati-difusioko zerbitzuen eta telebistaren sare-euskarriak udal barruti batean jarri nahi dituen operadore bakoitzak edota Zientzia eta Teknologia Ministerioak onartutako B2 eta C2 titularitateko jarduerak egin nahi dituztenek denen artean adostutako Garapen Programa eguneratua aurkeztu beharko dute, hau da, baimena duten operadore guztiek Tolosaldeko eremu funtzionalari buruzko Garapen Programa adostuko dute, eta programa horretan



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

bereziki aztertuko dira baimena eskatu den udalerrirako aurreikusita dauden eraginak.

2. Dokumentu honek nahitaez gaineratu beharko du udalerrian ezarrita dauden instalazioen egungo sarearen hedapena, baita hedatzeko aurreikusi denarena ere.

3. Telekomunikazioetako operadoreek eremu jakin bat estaltzeko garapen-programa bateratuak aurkeztu ahal izango dituzte, bai etorkizuneko teknologien kasuan, bai gaur egungo teknologien kasuan, oraindik ere teknologi hauen sarea hedatu ez bada.

4. Bi urtekoa izango da garapen-programaren indarraldia. Programa horretan aurreikusiko dira aldi horretan operadoreek izango dituzten premiak, eta hori aldatzea ordenantza honetan finkatutako prozeduraren arabera egingo da.

### **5. artikulua. Programaren edukia.**

Programak ondoko elementuak zehaztu beharko ditu:

- a) Oinarrizko estazio, antena, bestelako sistema eta irrati-frekuentziako beste elementu batzuen ezarpena.
- b) Oinarrizko estazioak eta antenak: izena, kokapenerako proposatzen den aldea eta lurralde-estaldura.
- c) Egindako zerbitzuen eta erabilitako teknologien deskribapena.
- d) Udalerrian edo, hala badagokio, udalaz haraindiko esparruan proposatutako irtenbide teknikoaren justifikazioa.
- e) Ekipoak ezartzeko eremu berrien aurreikuspena, aurreikusten den estaldura geografikoa justifikatuta.
- f) Lanak burutzeko gutxi gorabeherako egutegia.
- g) Antenak kokatzeko alternatiba teknikoak.
- h) Proposatutako kokapenak eta kokapen alternatiboak jasoko dituen kartografia, UTM koordinatuekin.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

- i) Partekatzeko akordioa.

Azpiegituren operadoreentzako zehaztapen berberak.

### **6. artikulua. Telekomunikazio-zerbitzuetarako udal antolamendua.**

1. Udalak telekomunikazio-zerbitzuen sarean beharrezkoak diren instalazioen kokapena –partekatua izan edo ez– antolatzeko garapen-programa bateratuetan biltzen den informazioa erabili ahal izango du, betiere teknikoki eta legez posible bada.

2. Telekomunikazio-zerbitzuen antolaketaren alorrean udala garatzen ari den plangintza posiblea egokitzeke, udalari bidali beharko zaio, gehienez ere 4 hileko epearen barruan, jada jarrita dagoen sareari edo izapideetan dagoen sareari buruz garapen-programan bildutako informazio eguneratua. Eta hori garapen-aurreikuspenari dagokiona denean, urte beteko epea izango da udalari aurkezteko, betiere ordenantza hau indarrean sartzen denetik.

### **7. artikulua. Izapideak.**

Garapen-programa bateratua udal bakoitzak bere barrutiari dagokionez onartzen duenera lotuko da. Udalak garapen-programa bateratuari hasierako onespina eman ondoren eta behin betiko onespina eman aurretik, programa hori jendaurrera jarriko da 15 eguneko epez, herritarrek edo nahi duenak alegazioak aurkezteko.

### **8. artikulua. Garapen-programa eguneratzea.**



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

1. Egungo instalazioak handitu nahi dituen operadorearen edo operadoreen ekimenez Garapen-Programa Bateratuan etorkizunean egin daitezkeen aldaketak udalari bidali behar zaizkio. Aldaketa horiek baimen berriak eman aurretik aurkeztu behar dira.

2. Programa aldatu nahi denean, aldaketa operadore guztiek aurkeztuko dute, ordenantza honetako 7. artikuluan ezarritakoa betez.

### **GARAPEN-PROGRAMA BATERATUAREN OINARRIZKO IRIZPIDEAK**

#### **9. artikulua. Irizpide orokorrak.**

Honakoak dira Garapen-Programan agertu behar diren oinarrizko irizpideak:

- a) Osasunari dagokionez segurtasunik handiena.
- b) Eraginik txikiena.
- c) Partekatzea.

#### **10. artikulua. Partekatzea.**

1. Partekatzea oinarrizko irizpidetzat joko da, herriaren, ingurunearen eta paisaiaren ikuspegitik begiratuz.

2. Arestian adierazitakoaren eraginetarako, operadoreek Garapen-Programa Bateratuan jaso behar dituzte partekatze-planak, dorreen, hartune elektrikoaren eta etxolen kokapenari dagokienez. Horiek guztiak eraikin bakar batean batuko dira, baina bakoitza bere gela berezian, nahiz eta goi-tentsioko energia elektrikoa denei batera hornitu.





## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

3. Partekatzeak operadore bakoitzak erabiltzen duen teknologia edozein izanik ere egin ahal izango dira, batetik besterako tarteak eta operadore bakoitzari eremu berean dagokion tokia zehaztu ahal izateko.

4. Irizpide orokortzat esan daiteke, kokapena partekatzea hobetsiko dela beste leku bat bilatu aurretik.

### **11. artikulua. Erabilera partekaturako dispentsa.**

1. Partekatu ezin denean, Garapen-Programa Bateratuan agertu beharko dira ezintasun horren arrazoiak; kasu horretan, kontuan izan beharko dira tarteak, baita hirigintza, ingurune eta paisaiaren arazoak ere.

2. Nolanahi ere, udalari dagokio partekatu beharretik salbuestea edo ez, eta udalak erabaki hori baimena ematerakoan hartuko du, Garapen-Programa Bateratuan jaso diren arrazoiak aztertu ondoren.

### **12. artikulua. Lur hiritarreko kokaguneak.**

Udalaren orografia berezia kontuan izanik, ez da aurreikusi hiri-lurrean edo etxebizitzetako teilatuetan inolako kokapenik egitea.

### **13. artikulua. Estazio irrati-elektrikoak kokagune berean instalatzea.**

Kokagune berean<sup>1</sup> operadore bat baino gehiagoren estazio irrati-elektrikoak instalatzen badira, baimena duten operadoreek, denak elkartuta

---

<sup>1</sup> Ikus, halaber, urtarrilaren 11ko CTE/23/2002 Agindua (Bosgarren puntua) ; horren bidez irrati-komunikazioko operadoreek zenbait azterlan eta ziurtapen aurkezteko bete behar dituzten baldintzak zehazten dira.



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

edota kokagunearen kudeatzailearen bidez, udalari egiaztatu beharko diote, uhin irrati-elektrikoen esposizio alorrean Estatuko araudiak agintzen duena betetzen dutela eta zehazki irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan xedatzen dena, dekretu horrek arautzen baitu jabari publiko irrati-elektrikoetarako babeserako baldintzak, emisio irrati-elektrikoen mugapenak eta emisio horietatik babesteko neurri sanitarioak.

### **III. TITULUA**

#### **UDAL BAIMENA**

#### **14. artikulua. Baimena eskatu beharra.**

1.- Ordenantza honen xedeko instalazioak udalaren obra-baimena behar dute.

2.- Gainera, lur hiritar ezinean kokatu nahi diren instalazioek Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko dute aldez aurretik, halaxe agintzen baitu azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuak, hau da, lur hiritar ezinean baimena emateko jarduerak koordinatzen dituenak.

3.- Udal barruti honetan irrati- eta telebista-zerbitzuen hedapenerako euskarri-sareak instalatzeko eta funtzionatzeko, hala nola Zientzia eta Teknologia Ministerioak ematen dituen B2 eta C2 titularitateei dagozkien jarduerak instalatzeko eta funtzionatzeko, instalazio- eta funtzionamendu-baimenerako izapideak egin behar dira, honako aginduetan xedatutakoak betez: Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 9ko 165/1999 Dekretua, jarduerabaimena atera beharretik salbuetsita dauden jardueren zerrenda ematen duena, hots, otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusten denaren arabera; edota, hala balegokio, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Legea bera, edota hori ordeztzen duen ingurumenari buruzko araudia.

4- Telekomunikazio-instalazioak ingurumenari dagokionez sentikorrek diren eremuetan ezarri nahi izanez gero, Ingurumenaren babesari buruzko 3/1998 Lege Orokorrean edo honen ordezkiko araudian jasotzen den

---



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura indibidualizatuaren menpe eta Ingurumena babesteko jasotzen diren gainerako betebeharren menpe egon beharko dira nolahi ere.

5- Artikulu honetako 3. atalean jasotzen diren izapideak egiteko, instalazioa eta obrak eta, eskatzen badira, neurri osagarriak baimenduko dituen baimena emango da aldi berean. Horretarako, instalazio-motari dagozkion egiaztapen teknikoak gaineratu beharko dira.

6- Udal-baimena eman aurretik ordenantza honetako 4. artikuluan eta ondorengoetan arautzen den instalazioen garapen-programa bateratuaren onespena aurkeztu beharko da, baita aplikatu beharreko araudiaren indarrez beharrezkoak diren baimenak ere.

### **15. artikulua. Baimen-eskaera.**

1. Baimen-eskaerarekin batera Garapen-Programa Bateratua doitzeko arrazoiak emango dira, teknikari gaituak sinatu eta elkargo profesionalak oniritzitako proiektu teknikoaz gain.

2. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren babeserako 3/1998 Legeak xedatzen duenez jarduera-baimena behar duen instalazioa jarri behar bada, I. eranskinean adierazten den dokumentazioaz gain, ingurugiroan izango duen eraginari buruzko azterlan indibidualizatua aurkeztu beharko da, eta horretan instalazioa bere kokagunean jartzeak eta funtzionatzeak izango dituen eraginen xehetasun guztiak emango dira, baita honako datuak ere:

- Ingurumenaren osasunaren alorrean eskuduntzak dituzten organoek emandako arau eta jarraibideak betetzen direla egiaztatzea.
- Instalazioak ingurumenean izango dituen eraginak.
- Instalazioak paisaiaren ikuskizunean izango duen eragina eta hori ezabatzeko hartu asmotan dituzten neurriak, hala nola neurri horiekin espero duten eraginkortasun maila.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

- Instalazioak paisaiaren ikuskizunean izango duen eragina irudikatzeko behar diren dokumentu grafikoak, baita aukeratutako instalazioari eman nahi zaion konponbidearena ere.
- Lekuaren 1:5.000 eskalako planoak eta kokapenarena 1:500 eskalakoak, biak oinarri topografikoan. Horretan, gainera, instalazioaren kokapena eta hariteriaren ibilbidea adieraziko dira zehaztasun osoz, instalazioa hiri-lurrean eta fatxadaren kanpo aldetik egiten denean.
- Instalazioaren inguruan leku sentikorrek badaude, adibidez, haurtzaindegia, haur-hezkuntzako ikastegiak, eta abar, hau da, urtarrilaren 11ko CTE/23/2000 Aginduan zerrendatzen direnak, agindu horretan arautzen dena beteko da derrigorrez.

3. Kalterik eragiten ez duten jarduerak abian jartzeko, 165/1999 Dekretuan (baimenetik salbuetsita dauden jarduerena) eskatzen diren dokumentuak aurkeztuko dira, eta horietan, nolahi ere, ordenantza honetako I. eranskinean eskatzen den dokumentazioa sartu beharko da.

### **16. artikulua. Txostenak.**

1. Edozein kasutan, baimena emateko, ingurumenaren, ondare historikoaren eta herri-estetikaren (kokapenaren arabera) alorreko eskuduntzak dituzten udal zerbitzuen aldeko irizpena behar da derrigorrez; eta kasu berezietan, sektoreari dagokion araudiaren arabera, eskuduntzak dituzten organo edo instituzioen irizpena beharko da.

2. Informe teknikoak jaso ondoren, beharrezkotzat joko balitz, dokumentazio gehigarria eska dezake udalak.

3. Baimen-eskaeraren xedeko instalazioaren kokapen-, obra- eta jarduera-baimenak aldi berean emango dizkio udalak operadoreari, baldin eta operadoreak jarduera horretarako gaitasun-titulua erakusten badu.

4. Zerbitzua behin betikoz jardunean hasteko, aurreko paragrafoan arautzen denaz gain, ordenantza honetako II. eranskinean uhin



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruz aipatzen diren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

### **17. artikulua. Aldaketak. Udalari jakinarazi beharra.**

1. Instalazioaren titulartasuna aldatu nahi bada edo telekomunikazioko instalazio irrati-eletrikoetako elementuak eta antenak ordezkatu nahi badira, Udalari jakinarazi beharko zaio, baita eskaintzen diren zerbitzuak aldatu nahi badira ere. Udalak aldaketa-proposamen bakoitza aztertu eta aldaketa horrekin Garapen-Programa Bateratua aldatu behar den edo ez erabakiko du.

2. Baimena lortzeko funtsezkoak izan diren ezaugarriak erabat aldatu edo berritu nahi badira, instalazio berrirako eskatzen diren beharkizun berberak beteko beharko dira.

## **IV. TITULUA**

### **INSTALAZIOAREN BALDINTZAK**

### **18. artikulua. Irizpide orokorrak.**

Izaera orokorrez irrati-frekuentziako instalazioek ondoko irizpideak bete beharko dituzte:

1- Merkatuan dauden teknologien artean ikus-eraginik eta ingurumenaren gainean eraginik txikiak sortzen eta pertsonen osasuna zaintzen dituen teknologia erabili behar da.

2- Ingurunearekin bateragarriak izan behar dute, ikus-eragina eta/edo ingurumenaren gaineko eragina murriztuz; horretarako, instalazioak ahal denik eta sinpleenak, ahal denik eta neurri txikienekoak eta ahal denik eta kopuru murriztuenean ahalbideratuko dituen teknologia eta diseinua erabiliko dira eta



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

instalazioen kokaguneak eta/edo oinarrizko egiturak tokian tokiko operadoreek partekatzeko modukoak izango dira.

3- Ordenantza honen II. eranskinean jasotzen diren integrazio arkitektonikoari eta segurtasunari buruzko arauak bete beharko dituzte.<sup>2</sup>

4- Instalazio irrati-elektrikoen enpresa-planari buruz 1066/2001 Errege Dekretuko 8.7. artikuluan biltzen diren irizpideak edo horiek ordezkatzeko edo garatzen dituen araudia onartzea.

### **19. artikulua. Kokatzeko irizpideak.**

Udalerrian telekomunikazio-instalazioetarako eskatutako balizko kokapenak finkatzerakoan, indarrean dagoen legeriak eta Garapen-Programa Bateratuak ezartzen dituzten irizpideez gain, ondokoak irizpideak ere hartu beharko dira aintzat:

1) Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean edo Hiri Antolakuntzako Arauetan eta horien arau osagarrietan finkatzen direnak.

2) Udal barruti honetan irrati- eta telebista-zerbitzuen hedapenerako euskarri-sareak instalatzeko eta funtzionatzeko, hala nola Zientzia eta Teknologia Ministerioak ematen dituen B2 eta C2 titularitateei dagozkien jarduerak instalatzeko eta funtzionatzeko, instalazio- eta funtzionamendubaimenerako izapideak egin behar dira, ordenantza honetan agindutakoa betez. Nolanahi ere, ezingo dira gainditu 1066/2001 Errege Dekretuko (jabari publiko irrati-elektrikoetarako baldintzak, emisio irrati-elektrikoen mugapenak eta emisio horietatik babesteko neurri sanitarioei buruzkoa) II. eranskinean jasotako gehieneko potentzia-dentsitateak; hala ere, agindu horrek ez du kaltetuko planeamendu baliabideetan finkatzen diren tarteak bete beharra. Kokapen partekatuaren kasuan ere irizpide berori bete beharko da.

---

<sup>2</sup> Udal bakoitzak eranskinetan definitu ahal izango ditu integrazio arkitektonikoko baldintzak. Dena den, aukeratutako soluzioak teknikoki justifikatu beharko dira eta ezar daitezkeen arauen arabera onartu edo baztertu ahal izango dituzte udal zerbitzuek.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

3) Ingurunea kontuan izan beharko da, eta premiazkoztat jotzen bada, gune konkreturen bateko ingurunean instalazioak izango duen eraginerako plan berezia eskatuko da.

4) Nolanahi ere, eraikin edo hiriko elementuetan instalazio mota hauetakoren bat jarri nahi denean, honako arauak bete beharko dira:

- Debehatuta dago antenak petrilean lotutako euskarrian jartzea edo eraikinaren fatxadako errematean.
- Mastak edo antenen eustoinak estalkian lotzen direnean, gutxienez ere edozein kanpoko fatxadaren planotik bi metro atzeratuko dira.
- Salbuespenez, antenak estalkietako gailurrean edo estalki gainean egon daitekeen edozein irtengune edo erpinaren gainean oinarritu daitezke, baldin eta eskuduntzak dituen udal zerbitzu edo organoaren iritziz, eskatzaileak aurkeztu duen dokumentazio teknikoan agertzen den instalazioa inguruko konposizioan egokitzen bada eta antenek fatxadaren errematearekin oreka gordetzen badute.
- Debehatuta dago planeamendurako tresnetan babes maila jakin batekotzat katalogatu diren eraikin eta elementuetan antenak jartzea, hala nola eraikin horiek eta holako instalazioak bateraezinezkoztat jotzen direnetan. Debehatuta daude, halaber, katalogatutako eraikina izan gabe ere, udalak herriaren itxuraketan berezitzat jotzen dituen eraikinetan jartzea. Holako lekuetan, bada, ezingo dira jarri aipatu instalazioak, salbu ikuskizunean duten eragin kaltegarria ezabatu egingo dela arrazoitu eta udalaren organo eskudunek arrazoi horiek onartzen dutenean.
- Eraikin jakin bateko fatxadan antenak jartzea onar daiteke, baldin eta tamaina txikikoak direlako eta leku egokian jarri direlako fatxadaren konposizioarekin bat badatoz eta ez badituzte eraikinaren edergarriak eta apaindurak gutxitzen. Horretarako, udalaren zerbitzuek apaindura elementuetara gutxienezko tartekak gordetzea eta kanalizazioak eta eraikinaren artean oreka bat lortzea eska ditzakete.

### **20. artikulua. Lur hiritar ezineko kokapenak.**



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

1. Garapen-Programa Bateratuan jaso gabeko eskaera berriren bat egiteak programa hori aldatu beharra ekarriko du, eta aldaketa horren izapideak aurreko artikuluetan finkatutakoaren arabera egingo dira; aldaketa-eskarian, halaber, udal barrutian hobetsitako kokapenak aztertu eta erabili beharko dira, eta horiek gainontzeko operadoreekin partekatuko dira. Kokapena egokia ez bada, interesatuak arrazoitu egin beharko du kokapen hori erabiltzeko ezintasun teknikoa, eta operadoreak beste kokagune bat proposatzen badu, hori Garapen-Programa Bateratuan jasoko da.

2. Ekipamendu guztia, ekipoen txabola barne, hesi batez inguratuko da.

3. Energia elektrikoaren hartunea lurpetik eramango da gutxienez ere azken 50 metroko luzeran.

4. Edozein kasutan, ekipamendua inguratzen duen hesitik muga, bide, ur-ibilgu eta eraikinetara gutxienez ere 10 metroko tartea gordeko da; arau horrek ez du esan nahi zona batzuetan tarte hori aldatu ezin dutenik planeamendu orokorreko baliabideek.

## V. TITULUA

### IKUSKAPENA ETA KONTROLA

#### **21. artikulua. Instalazioen kontserbazioa eta segurtasuna.**

1. Baimenen eta emakiden titularrek bere gain hartuko dute instalazioak segurtasun-, osasungarritasun- eta kontserbazio-egoera egokietan mantentzeko ardura.

2. Udal zerbitzuek kontserbazio-egoera eskasa antzematen dutenean, irregulartasunaren berri eman beharko diete baimenaren titularrei, jakinarazten zaienetik epe jakin baten barruan bidezko neurriak har ditzaten. Pertsonentzako edo ondasunetarako arriskutsuak izan daitezkeen egoerak antzematen





## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

direnean, berriz, bidezko neurriak berehala hartu beharko dira, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenaren arabera.

3. Lizentziaren xede izan zen hasierako zerbitzua edo jarduera behin betiko bertan behera uzten denean edo erabiltzen ez diren instalazio horretako elementuak bertan behera uzten direnean, baimenaren titularrak edo instalazioen jabeak irati-komunikazioko ekipoak edo elementuak eta instalazio horri eusten dioten eraikuntza edo eraikina desegin eta kendu egin beharko ditu, baita lursaila instalazio hau instalatu aurreko baldintzetan uzteko beharrezko ekintzak ere.

### **22. artikulua. Ikuskapena.**

Ordenantza honetan araututako telekomunikazio-ekipoen instalazio, obra eta funtzionamendurako hirigintza-baldintzak, udalaren ikuskapen-ahalmenera makurtuko dira, udalari dagokiolako legezketasuna eta diziiplina betearazteko ahalmena.

### **23. artikulua. Kautelazko neurriak salbuespenez hartzea.**

Salbuespen gisa eta zigor-espeditari hasiera eman aurretik, Herri Administrazioek ondoko kautelazko neurriak finkatu ahal izango dituzte eta ordenantza honetan arau-hauste gisa zehazten diren gertakarietako edozeinen ustezko arduradunari neurri hauek har ditzan exijitu ahal izango diote:

a) Obrak edo jarduerak etetea

b) Aparatuak edo ekipoak zigilatzea

c) Ingurumenarekiko kaltea zabal dadin eragotziko duen zuzenketa, segurtasun edo kontroleko beste edozein neurri.

## **VI. TITULUA**



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

### **ARRISKUAK BERMATZEKO ETA ASEGURATZEKO BALIABIDEAK**

#### **24. artikulua. Arriskuak aseguratzea.**

1. Baimena eskatzen duten operadoreak ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek, 7.2 artikuluan aipatzen direnek, alegia, aseguru-tresnen titulartasuna justifikatu beharko dute; alabaina, aseguru hauek instalazio irratielektrikoak ezartzeak ondasunetan eta pertsonengan izan ditzakeen ondorioei behar bezala erantzuteko aukera eman beharko dute.

2. Aurreko artikulua ondu ondoren, aseguru-merkatuan dauden aseguru bereziak kontratatu beharko dira, bai erantzukizun zibilari dagokionez bai titularraren instalazio eta gainontzeko ondasunei dagokienez.

3. Aukeratutako baliabideak, modalitatea edozein delarik ere, lizentzia- eskatzaileak udal barrutian dauzkan instalazio guztiak banan banaka estali beharko ditu.

#### **25. artikulua. Instalazioak kentzea eta ingurunea leheneratzea.**

Pertsonen osasunerako arriskua antzeman dela eta instalazioen funtzionamendua premiaz gelditu behar bada, baimenaren titularrari lan hori geldiaraztea eskatuko zaio. Nolanahi ere, instalazioak kendu behar badira, ingurunea leheneratu egin beharko da. Arriskua Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren txosten bidez finkatuko da, edozein interesatuk hala eskatuz gero.

## **VII. TITULUA**

### **ZEHAPEN-ERREGIMENA**

#### **26. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak.**



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Ordenantza honetan telekomunikazio-ekipoen kokapen, instalazio eta funtzionamenduari buruz xedatutakoa urratzen duten ekintzak edo hutsegiteak hirigintza mailako arau-haustetzat joko dira, eta ondorioz, indarrean dagoen hirigintza mailako araudiak xedatzen duenaz eta ondorengo artikuluetan xedatzen denaz zigortuko dira. Nolanahi ere, arau horrek ez du adierazi nahi arau-urratzailea Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena babesteko legean ezarritako zehapenetatik itzuri egingo denik.

### **27. artikulua. Arau-hausteak sailkatzea.**

1. Ordenantza honetan xedatutakoa urratzen duten ekintzak edo hutsegiteak hirigintza mailako arau-haustetzat joko dira eta honela sailkatuko: larriak edo arinak.

2. Arau-hauste larritzat joko dira:

- a) Ordenantza honetako 8. artikulua aipatzen dituen telekomunikazio-ekipoak jartzeko obrak lizentziarik gabe egitea.
- b) Jarduera martxan jartzea, emandako lizentzia edo baimenean agindutakoa bete gabe.
- c) Ordenantza honetako 20. eta 23. artikuluetan aipatzen diren telekomunikazio-ekipoak kontserbatzeko eta kentzeko beharkizunak ez betetzea.

3. Arau-hauste arintzat joko dira:

- a) Ordenantza honetan xedatutakoa urratzen duten gainontzeko ekintza edo hutsegiteak, egindako arau-haustea larritzat jotzen ez denean.
- b) Edozein kasutan, zehapen-prozeduran herriaren interesei eragindako kaltea txikitzat jotzen denean.

### **28. artikulua. Subjektu erantzuleak.**



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Ordenantza honetan araututako arau-hausteen erantzule izan daitezke solidarioki honakoak: obraren edo jardueraren sustatzailea, instalazioa egiten duena eta telekomunikazio-ekipoaren jabea eta, hala balegokio, terrenoaren jabea.

### **29. artikulua. Zigorrak.**

1. Era honetako zigorrak emango ditu udalak:

- a) Arintzat jo diren arau-haustek egin dituztenek obra, instalazio edo egindako jardueraren balioaren %1etik %5era arteko isuna jasoko dute.
- b) Instalazioak kontserbatzeko edo kentzeko betekizuna betearazteko obra osagarriak egin behar badira, obra horien balioaren %1etik %15era arteko isuna jasoko dute erantzuleek. Obra osagarri horien zenbatekoa udalaren zerbitzu teknikoek kalkulatuko dute.
- c) Jarritako instalazioaren balioaren %5etik %25era arteko isuna jasoko dute baimenik gabeko jarduerak egin dituztenek, baldin eta egindako obra horiek legeztatze modukoak badira. Instalazioaren balioa udalaren zerbitzu teknikoek kalkulatuko dute.
- d) Jarritako instalazioaren balioaren %15etik %50era arteko isuna jasoko dute baimenik gabeko jarduerak egiten dituztenek, baldin eta egindako obra horiek ez badira legeztatze modukoak. Instalazioaren balioa udalaren zerbitzu teknikoek kalkulatuko dute.
- e) Ordenantza honetan arautzen diren jarduerak, nahiz eta baimena dutenak izan, baimenean agindutako baldintzen kontra jokatzeko badute, baimenik gabe egindako jardueratzat joko dira, zehapen-erregimena aplikatzearen eraginetarako; jarduera horiei, ondorioz, aurreko paragrafoetan zehaztu diren irizpideen arabeko zigorrek ezarriko zaizkie.



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

2. Ordenantza honetan arautu ez denerako, indarrean dagoen legeriak zehazpeni buruz xedatzen duena beteko da.

### **30. artikulua. Baimenik gabeko irrati-komunikazioko instalazioak.**

1. Bidezkoak diren zigorren kalterik gabe, alkateari irrati-komunikazioko instalazio bat ordenantza honetan arautzen den aginduzko baimenik gabe funtzionatzen ari dela jakinarazten zaionean, alkateak honela jardungo du:

- a) Instalazioak ordenantza honetan biltzen diren baldintzak betetzen baditu, epe jakin bat emango zaio erantzuleari instalazioa legeztatzeko; nolana ere, epea ez da sei hilabetetik gorakoa izango.
- b) Sektore honi dagokionez indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik edo ordenantza honetan ezartzen dena ez betetzeagatik instalazioa legeztatzerik ez badago, instalazioa itxi egin beharko da, betiere interesatuari entzun ondoren. Udalak, horretarako, elektrizitate-hornikuntza moztea eska dezake, bide judizialez.

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

#### **LEHENA: Jadanik instalatuta dauden Telekomunikazioko Oinarrizko Estazioak.**

Garapen Plan Bateratua onartzen ez den bitartean eta lehendik telekomunikazioko oinarrizko estazio bat baino gehiago instalatuta daudenean, arian-arian elementuak partekatzeko hitzarmenak edo akordioak finkatu beharko dira.



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

### **BIGARRENA: Baimendutako instalazioak ordenantzara egokitzea.**

Ordenantza honen xede diren eta aurretik udalaren baimena duten eta funtzionatzen ari diren instalazioek urtebeteko epea izango dute beren instalazio irrati-elektriko guztiak 1066/2001 Errege Dekretuan ezarritakora egokitzeko.

### **HIRUGARRENA: Emisio irrati-elektrikoen mugapenak.**

Telekomunikazio-sareetako instalazio irrati-elektrikoen ondoriozko eremu elektromagnetikoetan sortzen diren emisio irrati-elektriko guztiak irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan edo horren osagarri edo ordezkoko arautegian finkatzen denera mugatuko dira.

Emisioen mugapenera lotu behar diren operadore guztiak aipatu araudia betetzen dutela ziurtatzeko egiaztapena bidali behar diote udalari urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Zientzia eta Teknologia Ministerioak emango duen egiaztapen horrek argi eta garbi ziurtatu behar du instalazioak zehaztasunik handienaz ikuskatu direla eta ez sistema aleatorioaren bidez. Holakorik ezean, gaituta dagoen teknikariaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, 1066/2001 Errege Dekretuan xedatzen diren mugak betetzen direla ziurtatuz. Arau horiek betetzen ez badira, zehapen-espeditentea irekiko da eta horren ondorioz instalazioa bera ixtea etor daiteke.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **LEHENA: Garapena**

Ordenantza hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, udalak erregistro berezi bat sortuko du. Bertan .....-ko udalerrian jadanik dauden telekomunikazio-zerbitzuak igortzeko eta hartzeko instalazio guztiak erregistratu beharko dira, baita horietan egin daitezkeen aldaketak ere

## **AZKEN XEDAPENA**



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2. artikuluetan ezartzen denari jarraituz, ordenantza hau lehenbizi Udal Osoko Bilkurak onartuko du, ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta hamabost egunetara indarrean sartuko da. Aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean indarrean egongo da ordenantza.

### **I. ERANSKINA**

#### **INSTALAZIO BERRIETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

#### **1. BAIMEN-ESKARIAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA:**

- Enpresaren datuak:
  - Sozietatearen izena eta IFZ.
  - Helbidea.
  - Proiektuaren arduraduna.
  - Dagokion telekomunikazio-zerbitzua egiteko gaitzen duen bidezko tituluaren jabe izatearen egiaztagiria, aplikatu daitezkeen araudi orokorrean eta sektoreko araudian xedatutakoaren arabera. Edota eskabidea egiteko bidezko titulua duen pertsona batek eskatzailea behar beste ahalitzen duela jasotzen duen egiaztagiria.
  - Zientzia eta Teknologia Ministerioak indarrean dagoen araudiak agintzen dituen betekizunetara lotutako instalazio irrati-elektrokoari behin betikoz emandako baimenaren egiaztapena.
- Eskaera-orria, V. eranskinekoa.

#### **2. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA**

Gauzatze-proiektua honako dokumentuekin:

□

#### **MEMORIA**

- 1) Instalazioa Garapen-Programa Bateratura egokitzen dela egiaztatzen duen dokumentua.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

- 2) Obra eta instalazioak deskribatu eta justifikatuko dituen txostena; horretan agertuko dira, halaber, eraikinaren barruan instalazioa non dagoen, hariteriaren ibilbidea (ibilbide horrek elementu arkitektonikoak ukitzen dituenean eta lur hiritarrean jarri nahi denean) eta kokagunea zehatz-mehatz, baita kokagune horretatik eraikin mugakideetara, bideetara eta ur-ibilguetara (instalazioa lur hiritarrezinean jarri nahi denean) dauden tartekak.
- 3) Instalazioaren datuak. Nolanahi ere honako datuak aurkeztu behar dira:
  - Kokagunearen koordenadak.
  - Estaldura-eremuak.
  - Instalatuko diren dorre eta antena motak. Horien neurriak.
- 4) Egituraren ikuspuntutik eta eraikinarekiko ainguren ikuspuntutik instalazioen egonkortasunaren kalkulu justifikatzaileak; dagozkion eraikuntza-planoak ere jaso beharko dira.
- 5) Ezarri beharreko ekipoen tipologiari eta ezaugarriei dagokienez teknologiarik onena erabiltzearen justifikazioa, hala ikus-eragina eta ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta gehien murrizteko.
- 6) Jatorri atmosferikoko deskarga elektrikoaren aurka babesteko hartutako neurri zuzentzaileen deskribapena eta justifikazioa.
- 7) Ikus-eraginaren dokumentazio fotografikoa, grafikoa eta idatzia; dokumentazio honetan argi eta garbi jaso beharko da instalazioak finkari dagokionez duen kokalekua eta finkaren beraren kokapena: instalazioa ezarriko den ingurunearen deskribapena, hedadura, forma, materialak eta beste ezaugarri batzuk. Oinezkoaren ikuspuntutik instalazioak duen ikus-eraginaren simulazio grafikoa ere gaineratu beharko da.
- 8) Azpiegituren erabilera beste operadore batzuekin partekatzeko aukeraren justifikazio teknikoak.
- 9) Erradiazioaren eraginpean egoteko neurriei dagokienez, tartekak 1066/2001 Errege Dekretuan ezarritakoa betetzen duela egiaztatzea.
- 10) Instalazio, seinaleztapen eta mugei dagokienez, 1066/2001 Errege Dekretuan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko txostena.





## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

□

### PLANOAK

- 1) Antenaren kokapena jasotzen duen plano kartografikoan, 1:5.000 eskala, lauki-sare eta guzti. Planoan ingurumen-arloko ebaluazioan eragina duten azpiegiturak grafiatu beharko dira.
- 2) Eraikin mugakide, muga-lerro, herri-bide, ur-ibilgu, eta abarren kokapen erlatiboa adieraziko duen 1:500 eskalako planoak.
- 3) Obra eta instalazioen planoak eskala egokian.

□

### BALDINTZA-PLEGUA

Ekipo, instalazio eta materialek bete behar dituzten baldintzak. Erradiazioei dagokienez, ekipoek bete behar dituzten zehaztapenak. Behe tentsioko araudiak, segurtasun-arauak, bestelakoak.

□

### AURREKONTUA

Aurrekontuan adieraziko da instalazioetarako aurreikusitako kostu osoa.

□

### Proiektuarekin batera baimenerako aurkeztu behar diren egiaztagiak:

- 1) Eraikinak instalazioaren gainkarga jasan dezakeela egiaztatzen duen egiaztagiri teknikoak; edozein motatako proiektuko egitura-errefortzurik egin behar izanez gero, hau ere teknikari gaitu batek sinatu beharko du.
- 2) Ekipoak eta aparatuak beraiei dagozkien zehaztapen teknikoekin bat datozeela egiaztatzen duten onarpen-egiaztagiak.
- 3) Segurtasun eta osasunaren oinarrizko azterlana edo segurtasun eta osasunaren azterlana, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek xedatzen ditu eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun alorrean bete behar diren gutxienezko arauak.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

### II. ERANSKINA

#### FUNTZIONATZEN JARTZEKO BEHAR DIREN EGIAZTAGIRIAK

- Instalazioak behe-tentsioko Arautegi Elektroteknikoak (Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren buletina) ematen dituen arauak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiria.
- Zientzia eta Teknologia Ministerioaren egiazttagiria, instalazioa martxan jartzeko baimena ematen duena, eta instalazioa martxan jarri aurretik ikuskapena edo azterketa berak egingo duela ziurtatzen duena.
- Zientzia eta Teknologia Ministerioari aurkeztutako emisio irrati-elektrikoen eraginpean egoteari buruzko derrigorrezko azterlana urtarrilaren 11ko CTE/23/2002 Aginduan xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Udalak beste kokagune batzuetan eskatu ohi duen beste edozein neurketaren ziurtagiria.
- Obra eta instalazioak egingo dituzten enpresa arduradunen gaitasun-agiri ofizialak.
- Zientzia eta Teknologia Ministerioan edo horren ordezkariaren batean teknikari gaituak egindako xehetasuneko azterlana aurkeztu dela egiaztatzen duen ziurtagiria. Horretan, instalazio irrati-elektrotik hurbil egon ohi diren pertsonak jasaten duten emisio irrati-elektrikoen eragin mailak adieraziko dira, 1066/2001 Errege Dekretuko 8. artikuluan edo dekretu hori ordezkatzeko edo garatzen duten araudian xedatzen denarekin bat.



**ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)


### **III. ERANSKINA**

#### **INSTALAZIOKO SEGURTASUN-ARAUAK**

Gutxienerako tartekak

##### **I. Eraikinaren ertzean dauden antenak.**

Antenak eraikinaren ertzean jarri behar direnean eta bertarako sarbidea instalazioaz kanpoko pertsonekin partekatu behar denean, gutxienez 2 metroko tarte utzi beharko da antenaren beheko ertzaren eta eraikinaren azalaren elkarzutaren artean.



##### **II. Eraikinaren estalki gaineko antenak.**



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Antenak eraikinaren estalkian jarri behar direnean eta estalkia instalazioaz kanpoko pertsonen sarbidearekin partekatu behar denean, eraikinaren ertzarekiko tartearekin proportzio zuzenean gehituko den gutxienez 2 metroko altuera errespetatu beharko da.

### III. Norabide orotako antenak.

Debekatuta dago, izaera orokorrez, antenaren irradiatze-norabide nagusian 10 metro baino gutxiagoko erradioan antenaren instalazioaz zerikusirik ez duten pertsonak sartzea. Nolanahi ere, sarrera-eremuan ezin izango dira gainditu jendea orokorrean eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruz Europako Kontseiluak 1999ko uztailaren 12an emandako Gomendioan edo, hala badagokio, administrazio aginpidedunek ondorio horretarako egiten duten araudian xedatzen diren potentzia-dentsitateen gehienezko balioak.

### V. ERANSKINA

#### LEHENTASUNEZKO OINARRIZKO KOKAPENAK

Lehentasunezko jotzen diren eta jadanik badauden kokapenen zerrenda (2.002ko Maiatza)

Udalerrria	Operadorea	Kokapena	
Albiztur	Retevisión Móviles	43° 07' 54'' 02° 07' 29''	
Alegia	Retevisión Móviles	43° 06' 12'' 02° 05' 54''	
Alkiza	Retevisión Móviles	43° 10' 25'' 02° 06' 45''	
Amezketza	Telefónica Móviles	57° 41' 50'' 47° 64' 77''	Eusko Jaurlaritzako Dorrea
	Retevisión Móviles	43° 02' 44'' 02° 05' 21''	
Asteasu	Retevisión Móviles	43° 12' 19'' 02° 06' 22''	
Berastegi	Retevisión Móviles	43° 08' 19'' 01° 58' 29''	



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

	Telefónica Móviles		
Bidegoian	Retevisión Móviles	43° 08' 45''	
	Telefónica Móviles	02° 09' 13''	
Villabona	Telefónica Móviles	57° 80' 95''	MURKULLUS
	Telefónica Móviles	47° 82' 79''	
	Telefónica Móviles	57° 96' 95''	LOATZU
	Airtel	43° 11' 08''	
		02° 00' 58''	
Irura	Retevisión Móviles	43° 09' 54''	
		02° 03' 49''	
Larraul	Airtel	43° 11' 31''	
		42° 05' 57''	
Lizartza	Telefónica Móviles	43° 06' 28''	
	Retevisión Móviles	02° 01' 54''	
Tolosa – Ibarra	Retevisión Móviles	43° 08' 08''	IBARRA
	Airtel	02° 04' 07''	
Tolosa 1	Telefónica Móviles	43° 08' 08''	OLLAUN
	Retevisión Móviles	02° 05' 04''	
Tolosa 2	Telefónica Móviles	57° 54' 94''	MONTESKUE
		47° 76' 89''	
Zizurkil	Airtel	43° 09' 54''	FRAISORO
		02° 03' 49''	

### Eskaturiko kokapenen zerrenda:

Udalerria	Operadorea	Kokapena	
Alegia	Telefónica Móviles	43° 06' 12''	JADANIK BADAGO
		02° 05' 54''	
Altzo	Retevisión Móviles	BERRIA	
Berrobi	Retevisión Móviles	BERRIA	



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Villabona	Retevisión Móviles	BERRIA	
Ibarra	Telefónica Móviles	43° 08' 08'' 02° 04' 07''	JANIK BADAGO
Irura	Telefónica Móviles	43° 09' 54'' 02° 03' 49''	JADANIK BADAGO
Lizartza	Retevisión Móviles	BERRIA (Jadanik badago herrian)	
Tolosa	Retevisión Móviles	57° 54' 94'' 47° 76' 89''	JADANIK BADAGO
Zizurkil	Retevisión Móviles	43° 09' 54'' 02° 03' 49''	JADANIK BADAGO
	Telefónica Móviles		

Altzon, 2003ko ekainaren 5ean.